

Gu Nagore, Olatz, Ane eta Ainhoa gara. Gure eginkizuna diskografia bat egitea da, eta bertan musika sortu eta entzutea. Gainera musika sortu nahi duten taldeak edo pertsonak instrumentua bertan edukiko dituzte. Ez hori bakarrik gelaxka desberdinak egongo dira musika genero bakoitza entzuteko eta egiteko.

Gure bezeroak musika sortu eta entzun nahi duten pertsonak izango dira adinak garrantzia eduki gabe, Tolosaldean dagoen diskografia bakarra denez jende asko etorriko dela uste dugu. Eta gainera beste diskografia batzuetatik desberdina dela izango dela uste dugu, izan ere, lehen esan dugun bezala musika genero desberdinak entzuteko gelaxkak egongo dira.

Aurrez aipatu dugun bezala, beste guztietatik desberdina izango da, izan ere genero bakoitzarentzat gelaxka bat egongo da. Gelaxka bakoitzean musika ekipo bat egongo da eta ordenagailu batzuk ere norbaitek musika altu ez badu entzun nahi kaskoekin entzuteko, kaskoak ere bertan egongo dira, disko asko autore desberdinena noski generoaren arabera banatuak.

Bi bat gelaxka egongo dira musika sortzeko, eta bertan langile bat egongo da laguntzeko instrumentuetatik gain. Langilearen lana bezeroari laguntzea da, hau da, kanta bat grabatu nahi dutenean laguntzea eta gainera musika aditua izango denez aholkuak eman ditzazke.